

AZTERKETARIAREN EGITEKOA: 2. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketak

- 1. ZATIA. Aztertzaileen galderak
- 2. ZATIA. Gaia garatu
- 3. ZATIA. Bat-bateko elkarrizketa

(minutu 1/1,
ikasleko)

(3:30/3:30,
ikasleko)

(2:30/2:30,
ikasleko)

**Guztira 15 bat
minutu
(bikoteko)**

Gaia prestatzeko denbora:

10 minutu inguru dituzu gaia prestatzeko.

Amaitzen duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

12. gaia: Ibilgailuak



Egitekoa

Ibilgailuak luxua izatetik ezinbesteko tresna izatera pasatu dira. Izan ere, familia askotan bi baino gehiago daude.

Zehatzago

Ibilgailua aukeratzeko orduan, zeri erreparatu behar diogu? Zer da garrantzitsuagoa, kanpoko itxura ala ziurtasuna? Autoek jabeen izaera islatzen dute?

Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.

Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

2. MAILA

2. ZATIA

BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (Argazkien orria).

- Ikasleei bere fitxak eman eta zer egin behar duten azaldu (elkarri begira egongo dira eta irakaslea pixka bat atzerago jarriko da).
- Fitxak aurrean dituztela, minutu erdi bat utzi pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

- Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu... (ikus. liburuxka berdean, 3. or.).
- Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.

12. ARGAZKIA:

Zein da ibilgailurik aproposena?

Fitxan agertzen diren argazkietan zenbait ibilgailu mota daude. Bion artean auto bat erosi behar izanez gero, zein erosiko zenukete? Zeri erreparatuko zenukete? Zergatik?

Zuen iritzia eman, bakoitzak berea. Horren ondoren, zuen iritziak eztabaidatu.

GALDERA OSAGARRIAK

- Zein ez zenukete inola ere erosiko?
- Autoa harro sentitzeko tresna da?
- Nolakoak izango dira autoak etorkizunean?
- Abiaduran eta potentzian mugak jartzearen aldekoa al zarete?



Zein da ibilgailurik aproposena?



2. maila



12. argazkia